



❖ HERRILANAK Hilerriaren anpliazio proiektua onartzeko Batzordea gaur

Herrilan Batzordea elkartuko da gaur 16:30etan Udaltxan eta bertan udal hilerria handitzeko proiektuaren lehen fasea eztabaidatuko dute. Horretaz gain, beste puntu batek jasotzen du hilerria handitzeko lehen fasearen kontratazio-espeditentia onartzea. ||

❖ SEXISMOARI AURRE EGITEKO GIZONENTZAKO TAILERRA-Ibon Arrizabalaga de Mingo

“Gizonezkoak gara sexismoaren soldaduak eta horri intsumisioa egiteko prestatu nahi dugu tailerrean”


Berdintasun Kontseiluak antolatu du tailerra. Helburua du gizonezkoen portaeraren eredia aztertzea, sexismoari aurre egiteko bideak jartzea eta esperientziak trukatzeko.

SEXISMOAREN inguruan tailerra antolatu du Berdintasun Kontseiluak. Izan ere gizartean berdintasunaren bidean aldaketak eman diren arren, oraindik ere gizon eta emakumeak eredu ezberdinetan hazten dira eta asmoa da gizonek beraien artean hitz egin eta hausnartzeko, eredu hauek hautsi eta berdintasunaren aldeko jarrekarak bultzatzeko. Tailerra gidatuko du Ibon Arrizabalaga de Mingok.

Tailerra asteartero izango da, urtarrilaren 10ean hasi eta martxoaren 28ra arte, Biteri kultur etxean. Ordu eta erdiz ariko dira, arratsaldeko 19:00-etatik 21:30etara. Izena emateko epea urtarrilaren 4an bukatzen da eta horretarako harremanetan jarri behar da dinamizatzailearekin, telefono honetara deituta: 628 775 954 edota mezu bat bidalita helbide elektronikoa honetara: ibion@yahoo.es

Tailerraren helburuak

Ibon Arrizabalaga de Mingok azaldutakoaren arabera, tailer honen helburua da batetik informatzea: “informazioa jaso eta ikasteko gunea izango da batetik lantegi hau, sexismoaren inguruko gai buruz: gizon eta emakumeen heziketa desberdina, ondorioz gertatzen den banaketa bidegabea, harremanak, bortizkeria, lanaren banaketa eta abar”. Horrekin batera aztertuko dute egoera horri nola egin aurre, “orain arteko bide okerra moztu eta giza-harremanak zuzentzeko zer egin pentsatuko dugu” dio. Bestetik



Ibon Arrizabalaga de Mingo, dinamizatzailea.

lantegi honen 3garren helburua izango litzateke gizonen arteko topalekua izatea: “gizartean gizonek ez baitute gai hauen inguruan hitz egiteko aukera ezta ohitura handirik izaten eta gune hau eskaini nahi da gai horiei buruz hitz egiteko” azaldu du dinamizatzaileak.

Laburbilduz, Ibon Arrizabalaga de Mingok dio gizonez-

koak direla sexismoaren soldaduak, zapaltzaileak, eta tailer honetan horri intsumisioa egiteko bideak jarri nahi direla.

Landuko diren gaiak

Gizonentzako tailer honetan sexismoaren inguruko gaiak landuko dira: gizon eta emakumeen rola eta heziketa; emakumeen zapalketa eta sexismoa; gizonak zapaltzaile

“Gizartean aldaketak eman diren arren ezin da esan berdintasuna lortu denik. Neskak eta mutilak oso eredu ezberdinetan hezten ditugu oraindik ere. Asmoa da orain arteko bide okerrak moztu eta zuzentzeko zer egin dezakegun pentsatzea”

“Asmoa da gizonak bakarrik biltzea, emakumerik gabe, bitarteko bezala harremanak beste era batera planteatzeko”

izatera iristeko zein baldintza ematen diren; harremanetan sortzen diren arazoak; sexismoak gizartea egituratzen duela: lana, osasuna, politika...; bortizkeria; feminismoa eta homosexualitatea.

Gizonezkoak bakartu bitarteko bezala

Tailerra gizonezkoentzat da bakarrik eta horren inguruan Ibon Arrizabalaga de Mingok azaldu du “gizonak emakumeekin daudenean fanfarro-neatzeko joera izaten dute, direna baino gehiago erakusten dute, erakargarriagoak direlakoan. Bestetik, emakumeak jasan duten guztiagatik, zaila egiten zaie gai hauei hitz egitea gizonezkoen errua bota gabe. Asmoa da gizonak bakartzea, bitarteko bezala, harremanak beste era batera planteatzeko”. ||

❖ GERTAERAK

Hernaniko ehiztari bat tiroz zauritua

Joan den larunbatean J.R.P.M, 50 urteko ehiztari hernaniarra tiroz zauritu zen Zubieta auzoan basurde ehitzeko batida batean ari zela, Jaurilaritzako Barne Sailak adierazi duenez. Gertaera goizeko 11:00etan izan zen eta zauritua Donostiako ospitalera eramán zuten. ||

❖ KARABI ELKARTEA 5garren urteurren ospakizunak bihar

Karabi Elkarteak sortu zela 5 urte pasa dira eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte bihar, 16:30etatik hasita. Lehenengo haurrentzako jolasak izango dira eta gero Marsel magoaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek (abenduaren 30ean Sandiusterrin izango da Marsel magoa berriro). Ondoren txokolatada guztiarentzat. ||

❖ GABONAK JOLASEAN Barrene herrikoia

Gaur Kiroldegiko frontoian barrene herrikoia izango da 6-12 urte arteko umeentzat, arratsaldeko 16:00etan. ||

Ipui ordua Biterin

Lur Kortaren eskutik ipuin kontaketa izango da gaur udal liburutegian 3-4 urtekoentzat 11:00etan eta 5-7 urtekoentzat 11:30etan. ||

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsorok Okindegia, S.L.

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Amegar

Etxe Tresnak

Altzariak

Txirrita Kalea 15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03 Izpizua 27

☎ TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 + FARMAZIAK 1 Egunez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 - 943 554892 1 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giro hotzarekin jarraituko dugu. Lehen orduetan euria egingo du. Elur kota nahiko behean izango dugu, 700 m. inguruan. Temperatura maximoa 7°C inguruan ibiliko da.
BIHAR Asteazkenean prezipitazioak izango dira protagonista. Elur kota 300 metrotara jaitsiko da. Tenperaturak behera egingo du. (euskaime)

❖ UDAL AURREKONTUAK

Rekondo: "BHK pribatizazioaren argumentu faltsura jotzen du engainatzeko"

Ohar batean BHK Udal Aurrekontuei egindako kritikei erantzun die.

JOXAN Rekondo Alkateak prentsa oharra bidali du Hernaniko Kronikara BHK Udal Aurrekontuen inguruan egindako kritikei erantzuten. Rekondoren hitzetan "BHK bere burua engainatzen du eta are okerrago, hernaniarrak engainatu nahi ditu, kasu honetan udal aurrekontuen kontura", eta Alkateak dioenez "BHK pribatizazioaren argumentu erraz zein faltsua erabiltzen du horretarako".

Lur erresidentziala

Pribatizazioaren inguruan Rekondok dio BHK besteei eskatzen diela "beraiek aginduan egon diren bitartean egin ezin izan dutena". Bere hitzetan ezker abertzaleak

aprobetxamendu urbanistiko-
ei zegokion lur erresidentzialari "uko" egin zion "3 milioi eurotan baloratua", dio.

Etxebizitza babestuen inguruan, Batasuna agintean zegoenean Alkatearen ustez ez zen "tajuzko promozio bakar bat ere bultzatu".

Gas Hernani-ren salmenta

Oharrak dionez Udaletxeak ez du enpresa honen etekinen "xentimo bakar bat ere ikusi". Rekondok dio enpresa honen estatutuak Batasuna agintean zegoenean sinatu zirela eta bertako klausula batek "kanpoan uzten du Udaletxea, etekinen banaketan", dio. Gas Hernaniren partizipazioa saltzea horregatik erabaki da, oharrak

dioenez: "Gas Hernani sortu zen gasa herrira ekartzeko eta helburu hori bete da, pentsatu dugu momenturik egokiena hau dela salmenta egiteko, ez baitu inolako etekinik ematen". Alkatearen hitzetan bertatik ateratako errekurtsioak "ondare publikoa hobetzeko balioko dute".

Bonobusa

Bonobusaren inguruan kolaboratzeko prest azaldu da, baina dio Diputazioaren eskumena dela hori. Bestetik Aurrekontu sozialak badirela erantzun du Rekondok: "auzo elkarte gehien parte hartzea izan dute, eta amaierako Aurrekontuetan jasotako aportazio interesgarriak egin dituzte", dio. ||



Bertso jaialdi arrakastatsua Bertso Latan

Joan den ostiralean egin zen Bertso Latako jaialdi nagusia, Hernaniko kiroldegia lepo betea zela. Jaialdi hasieran Antton Garin eta Julian Ezeiza Aterperi omenaldia egin zien Bertso Eskolak eta beren lana eskertu nahi izan zuten herritarrek. Argazkian bertotan ageri da Aterpe, Garin ondoan duela eta Iturriaga, Arzallus eta Egaña atzean direla. Hurrengo saioa, ostiralean: bertso afaria Zumardin, Irazu eta Mendiluzerekin. ||

2006ko Egutegia

URTARRILA ILBELTZA

Prezioa: 3,00 €

● Ilbehera ● Ilberri
Salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.

◆ ERREMONTA



Errege egunera atzeratu daiteke Galarretako semifinala, Lizaso noiz errekerperatuko zain

Igandean jokatu behar zen Faustino torneoko semifinala atzeratu egin da, Lizaso Labrit torneoko partiduan lesionatu eta gero. Enpresak Errege eguna arteko epea eman dio, baina badirudi lesioa ez dela uste bezain gogorra eta jokatzeko moduan izango dela. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Futbolin txapelketa bihar eta Txuri-urdinera irteera ostiralean

Eguberriko asteburuaren ondoren gaur irekiko ditu berriro ateak Gazte Txokoak. Biharko futbolin txapelketa antolatuta dute bertan eta ostiralean Txuri-urdinera joango dira patinatzerara, irteera honetan izena eman duten guztiak. Ostegunean berriz zinema saioa izango da Aristizabal kaleko lokalean. ||

❖ KONTSUMO ARDURATSUA

Bihartik hasi eta ostirala arte kontsumo arduratsua sustatzeko jolasa izango da

Ingurumen sailak eta Artelatzen antolatuta, kontsumo arduratsuari buruzko jolasa izango da bihartik hasi eta ostirala bitartean. Biharko jolasak lehen hezkuntzako 3 eta 4garren mailakoentzat alde batetik (11:00etatik 13:00etara), eta bestetik DBHko 1 eta 2garren mailakoentzat daude antolatuta (16:30etatik 18:30etara). ||

❖ OSIÑAGA

Auzo elkarteko saskia Pili Atxagarentzat

Osiñagako auzo elkarteak urtero zozketatzen du Gabonetan saski bat eta aurten Sagasti etxeko Pili Atxagari egokitu zaio. Auzo elkartetik Errazkin-Atxaga familia zoriondu dute. ||

† PATXI ALKORTA

URIA


JAUNA
Herenegun hil zen, 52 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren

- Goian bego -

Nahiz eta gure artetik
urrutira joan,
beti izango zaitugu bihotzean

Zure lagunak: Juan M^a Torrecillas, Beatriz Otegui eta Aritz, Itsaso eta Aitzol Torrecillas Otegui.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR**,



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Arotz profesionalak lan bikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).